



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

PRENTSA-OHARRA

AURREKONTUEN AURREKO ZUZENKETA-ESKEEN GASTU-ESKAERETAN “ZUHURRAK” IZATEKO ESKATU DEUTSE REMENTERIAK BATZAR NAGUSIETAKO TALDEI

- **2022rako bilketa-aurreikuspenak “baikorrek” diran eta aurtengo diru-sarrerakaz alderatuta igon egin daben arren, Aldundia “oso adi” dago energiaren prezioak eta hornidura-katearen krisiak izan daikien eraginaren aurrean.**

(Bilbon, 2021eko zemendiaren 4an). Bizkaiko Foru Aldundiak Herri Dirubideen Euskal Kontseiluaren urriaren 15eko bileraren eukia helduarazo deutso gaur Bizkaiko Batzar Nagusietako Iraskunde, Gobernamentu On eta Gardentasunerako Batzordeari. Bilera haretan, besteak beste, euskal administrazioen aurtengo eta hurrengo urteko diru-sarreraren aurreikuspena ezarri zan. Halan, Bizkaia jagokonez, ekitaldi honetarako, Foru Gobernuak 7.958,8 milioi euro batzea aurreikusi dau, hau da, % 11,7ko igoerea, 2020agaz alderatuta, eta orain dala urtebete aurreikusitakoa baino 600 milioi euro baino gehiago. Datorren urterako % 5,4ko hazkundera aurreikusten dau, 8.386,9 milioi eurora iritsi arte.

Bere ekimenez zenbateko horreek Batzar Nagusietako taldeen aurrean aurkeztean, Unai Rementeria ahaldun nagusiak esan dau Bizkaia susperraldi ekonomikoaren fasean dagola, eta une honi zuhurtziaz aurre egiteko deia egin dau, jarduera ekonomikoaren susperraldia eta enpleoaren sorrerea aldatu daikiezan “zalantzak” dagozalako. Energiaren prezioa eta hornidura kateen krisia aitatu ditu zalantza nagusien artean.

Mehatxu horreen aurrean, 2022ko aurrekontuen tramitazioan egindako zuzenketa-eskeen ondoriozko gastu eskaeretan “zuhurra” izateko eskatu deutse ahaldun nagusiak Batzar Nagusietako taldeei. Kontu horreek datorren asteko astelehena eta eguena bitartean xehatuko ditue sail bakoitzeko arduradunek, Ogasun eta Finantzetako Batzordearen 9 saiotan.

HDEKren bileraren eukiaren azalpenean, Aldundiko arduradun nagusiak beste datu ekonomiko batzuk emon ditu. 2021eko likidazioa 7.122,1 milioigaz itxi zan, aurreikusitako 7.341,6 milioien azpitik. Aldea 220 milioikoa izan zan. 2022an aplikauko da lehenengoz Ekarpenen Lege barriaren metodologia; horren arabera, Bizkaiak 5.544,9 milioi euro jarriko ditu Eusko Jaurlaritzaren finantzaketarako.



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

Euskal Autonomia Erkidego osoan, hiru foru ogasunek 2022rako aurreikusitako diru-sarreraren batura 16.290,4 milioi eurokoa da. Eusko Jaurlaritzak 11.003,9 milioi euroko ekarpena jasoko dau. Kopuru horretatik, Bizkaiak % 50,39 jarriko dau, aurreko legean baino hamarren bat gehiago.

Herri Dirubideen Euskal Kontseiluak doikuntzarako Funts Orokorra 113,8 milioi eurogaz hornitzea aurreikusi dau 2022rako, Eusko Jaurlaritzak eta foru aldundiek finantzautu, koefizienteetan oinarrituta. Holan, Bizkaiak 16,7 milioi euro emongo deusaz oso-osorik Arabaren (64,5 m €) eta Gipuzkoaren (49,3 m €) artean banatuko dan funts horri.

2022an, foru aldundiek 157,1 milioi euroko defizit-ahalmena izango dabe, eta horreetatik 79,2 milioi euro Bizkaiari jagokoz.

Rementeriak Bizkaiko Lurralde Kontsejuaren azkenengo bileraren eukiaren barri emoteko aprobetxau dau Batzar Nagusietan egin dauen agerraldia. Saio horretatik ondorioztatu zan udalek 946,3 milioi euro jasoko dituela 2022an, % 14,1eko igoerea (116,8 milioi gehiago). Bizkaitar baktzak “816 euro” jasoko ditu, Araban (801 euro) edo Gipuzkoan (782 euro) bizi diranek baino zeozer gehiago. Ahaldu nagusiak lurraldeko udalen finantza “egoera ona” aitatu dau, izan be, “8 baino ez dira izan” Foru Aldundira zorpetzea eskatzera joan diranak.

BATZAR NAGUSIETAKO TALDEAK

Oposizinoko taldek be zuhur jokatu gura izan dabe Foru Gobernuak datorren urteari begira egindako aurreikuspenakaz. Eduardo Andradek (Bizkaiko Talde Berezia-PP) esan dauenez, hazkunde ekonomikoa eta enpleoa sortzeko “zorpetze garaia” bada be, zuhurtziaz jokatzeko garaia da, ziurbakotasun horreek dirala eta. Rementeriak azaldutakoei inflazioaren arazoa eta hirugarren hiruhilekoan ekonomiak izandako motelaldia gehitu deutsez, Eustaten azken datuetan oinarrituta. Eneritz de Madariaga Elkarrekin Bizkaiako bozeroalea “zuhur” agertu da beste adierazle ekonomiko batzuk ezagutu arte. Eta Arantza Urkaregik (EH Bildu) esan dau behar bada “baikorregiak” izan dirala datorren urteko diru-sarreraren aurreikuspenetan. “Kontuz ibili behar dogu”.

HDEKk erabilitako zifrei jagokenez, popularrek uste dabe “onura gehien jasoko dabena” Eusko Jaurlaritzan izango dala, Ekarpunen Legearen metodologia barriaren aplikazioak koefiziente bertikala aldatu dauelako. “Euskal zentralismoa da, eta Aldundia horren aurrean saldu egin da”, esan dau Andradek.

Talde moreak defizita eta zorpetzea “hobeto aprobetxetako” eskatu deutso Aldundiari, “Sektore kaltetuenetan ekonomia suspertzeko eta personak politika sozialen bitartez



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

erreskatetako”. Madariagaren berbetan, horrek erreforma fiskal bat dakar, “aberastasuna guztiengana iritsi daiten”.

Urkaregi, bestalde, pozik agertu da aurreikuspenek diru-sarrera gehiagoko agertokia marrazten dabelako, baina kontua da diru-sarrera horreek “zelan banatzen diran”. Alderdi moreak moduan, erreforma fiskala egiteko beharra azpimarratu dau, “sistema zuzenago eta bidezkoago baterantz joateko”, aldez aurretik Soziedadeen ganeko Zergaren bilketea murrizteko ezarritako neurriak kritikatu, pandemiak enpresetan izan dauen eraginarengaitik % 1,7 jaitsi dalako aurton. Holan, zerga horretan hobariak kentzearen eta PFEZa aldatzearen alde egin dau, “gehiago daukienek gehiago ordaindu daien”.

Foru Gobernua babesten daben Batzar Nagusietako taldeak pozik agertu dira diru-bilketaren itxaropen “positiboakaz”. Juan Otermin bozeroale sozialistak deitoratu egin dau batzuek Jaurlaritza “arerio moduan” ikustea, eta ez “guztioi mesede egiten deuskuen” politika publikoak garatzeko osagarri moduan. Uste dau albiste ona dala Udalkutxak udalentsat ekarpen handiagoa egitea, baina kezkatuta agertu da Soziedadeen gaineko Zergak sortutako diru-sarrera fiskalen bilakaereagaz, 2022. urteak “normaltasunerako bidea erakusten dauen” arren.

Beste alde batetik, Euzko Abertzaleak taldeak 2022ko aurreikuspenak Ekarpenen Lege barriaren metodologiagaz egin izana azpimarratu dau. Jesus Lekerikabeaskoa bozeroalearen berbetan, gainera, “seinale ona” da 113,8 milioi euro dituan doikuntza Funtsetik Bizkaiak “ezer ez jasotea”; horrek esan gura dau “aurreikuspenak ondo” egiten dirala, eta udalek 117 milioi euro gehiago izango dituela inbertiduteko.

Erantzuteko txandan, eta EH Bilduk “Tobin eta Google tasen” (175 milioi, Urkaregiren berbetan) bilketan izandako eraginaren inguruan galdetuta, Rementeriak baieztu dau zerga biak kontuan hartu dituela aurreikuspenetan, Bizkaiak horreen “% 90” bilduko dauela eta bere Gobernua Kontzertu Ekonomikoaren Legea aldatzearen zain dagola, Bizkaiko Batzar Nagusietara foru araudi barri bat ekarteko.

Etorkizuneko Larrialdi Funtzaren ezarpenari jagokonez, Rementeriak azaldu dau Bizkaiaren proposamenak “guztizkoaren % 0,5” erreserbetea aurreikusten dauela, “75 milioi euroko mugeagaz”, “personen bizitza edo segurtasuna arriskuan jarten daben larrialdiei” erantzun ahal izateko.

COVID PROTOKOLOAK ETA CO2 NEURTZEKO GAILUAK

Bilera berean, batzordeak Elkarrekin Bizkaia taldearen arauz besteko proposamen bat baztertu dau. Proposamen horretan Aldundiaren eskumeneko eraikin eta zerbitzu



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

publikoetako Covid protokoloen inguruko informazioa eguneratzea eskatzen zan, aerosolen bidezko transmisioari jagokonez, eta baita CO2 neurtzeko eta erakusteko gailuak instalatea be. Talde moreak hobekuntza hori garraio publikora eroan gura eban, eta baita Aldundiaren esku dagozan eguneko zentroetara eta egoitzetara be. Ekimena baztertu egin dabe Batzar Nagusietako Euzko Abertzaleak eta Euskal Sozialistak taldeek, Aldundiak osasun agintariak egindako gomendio “guztiak” ezarri ditualako. Beste alde batetik, Batzar Nagusietako beste talde biek, EH Bilduk eta Talde Berezia-PP Bizkaiak, aldeko botoa emon dabe.



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

NOTA DE PRENSA

REMENTERIA PIDE A LOS GRUPOS JUNTEROS QUE SEAN “PRUDENTES” EN LAS PETICIONES DE GASTO QUE INCLUYAN EN LAS ENMIENDAS PRESUPUESTARIAS

- **Pese a que las previsiones de recaudación para 2022 son “optimistas” y crecen con respecto a los ingresos de este año, la Diputación está “muy atenta” a la incidencia de ciertas incertidumbres como el precio de la energía y la crisis de la cadena de suministro.**

(Bilbao, a 4 de noviembre de 2021). La Diputación Foral de Bizkaia ha trasladado hoy en la Comisión Institucional, Buen Gobierno y Transparencia de las Juntas Generales de Bizkaia el contenido de la reunión del Consejo Vasco de Finanzas (CVF) de 15 de octubre, en la que se estableció, entre otras cosas, la previsión de ingresos de las Administraciones vascas para este año y el próximo. Así, en lo que concierne a Bizkaia, para este ejercicio el Gobierno foral proyecta una recaudación de 7.958,8 millones de euros, lo que supone un incremento del 11,7% respecto a 2020, y más de 600 millones de euros respecto a lo previsto hace un año. Para el año que viene prevé un crecimiento del 5,4%, hasta alcanzar los 8.386,9 millones de euros.

Al presentar estas cifras ante los grupos junteros por iniciativa propia, el diputado general, Unai Rementería, ha constatado que Bizkaia se encuentra en fase de recuperación económica, apelando a afrontar este momento con cautela, ya que existen “incertidumbres” que pueden trastocar la recuperación de la actividad económica y de la creación de empleo. Como principales dudas ha señalado el precio de la energía y la crisis de las cadenas de suministro.

Ante estas amenazas, el diputado general ha reclamado a los grupos junteros que sean “prudentes” en las peticiones de gasto que resulten de las enmiendas en la tramitación de los presupuestos de 2022, unas cuentas que serán desgarnadas entre el lunes y el jueves de la próxima semana por responsables de cada área en 9 sesiones de la Comisión de Hacienda y Finanzas.

En su explicación del contenido de la reunión del CVF, el máximo responsable de la Diputación ha detallado otra serie de datos económicos. La liquidación de 2021 se cerró con una recaudación de 7.122,1 millones, por debajo de los 7.341,6 millones de los que se habían previsto. El desfase fue de 220 millones. En 2022 se aplicará por primera vez la metodología de la nueva Ley de Aportaciones, según la cual Bizkaia aportará 5.544,9 millones de euros a la financiación del Gobierno Vasco.



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

En el conjunto de la Comunidad Autónoma Vasca, la suma de los ingresos sujetos a reparto previstos por las tres haciendas forales para 2022 asciende a 16.290,4 millones de euros. El Gobierno Vasco recibirá una aportación de 11.003,9 millones de euros. De esta cantidad, Bizkaia aportará el 50,39 %, una décima más que en la ley anterior.

El Consejo Vasco de Finanzas prevé dotar el Fondo General de Ajuste para 2022 con 113,8 millones de euros, financiado por Gobierno Vasco y diputaciones forales en base a coeficientes. De este modo, Bizkaia aportará 16,7 millones de euros a este fondo, que se repartirá íntegramente entre Álava (64,5 M€) y Gipuzkoa (49,3 M€).

En 2022, las diputaciones forales dispondrán de una capacidad de déficit reconocido de 157,1 millones de euros, de los que 79,2 millones corresponden a Bizkaia.

Rementería ha aprovechado su comparecencia en las Juntas para dar cuenta también del contenido de la última reunión del Consejo Territorial de Bizkaia. De esa sesión se extrajo que los ayuntamientos recibirán 946,3 millones de euros en 2022, un incremento del 14,1% (116,8 millones más). Cada vizcaíno y vizcaína recibirá “816 euros”, algo más que quienes residan en Alava (801 euros) o Gipuzkoa (782 euros). El diputado general se ha referido a la “buena situación” financiera de los ayuntamientos del Territorio, ya que “solo 8” han acudido a la Diputación para solicitar endeudamiento.

GRUPOS JUNTEROS

Los grupos junteros de la oposición se han querido también mostrar prudentes con las previsiones hechas por el Ejecutivo foral de cara al año próximo. Eduardo Andrade (grupo Mixto-PP Bizkaia) ha dicho que, aunque es “época de endeudamiento” para generar crecimiento económico y empleo, es también momento para ser prudentes debido a estas incertidumbres. Ha añadido a las expuestas por Rementería, el problema de la inflación y la ralentización de la economía en el tercer trimestre en base a los últimos datos del Eustat. La portavoz de Elkarrekin Bizkaia, Eneritz de Madariaga, se ha mostrado “cauta” hasta conocer otros indicadores económicos. Y Arantza Urkaregi (EH Bildu) ha sostenido que igual han sido “demasiado optimistas” en las previsiones de ingresos del año próximo. “Hay que ir con cuidado”.

Respecto a las cifras manejadas por el CVF, los populares creen que “el más beneficiado” es el Gobierno Vasco por el cambio en el coeficiente vertical producido por la aplicación de la nueva metodología de la Ley de Aportaciones. “Es un centralismo vasco al que se ha vendido la Diputación”, ha dicho Andrade.



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

El grupo morado ha pedido a la Diputación que “aproveche mejor” el déficit y el endeudamiento “para reactivar la economía en los sectores más dañados y rescatar a las personas” con políticas sociales, lo que se traduce según Madariaga en una reforma fiscal “para que la riqueza llegue a todos”.

Urkaregi por su parte se ha congratulado de que las previsiones dibujen un escenario con más ingresos, pero el asunto es “cómo se reparten”. Al igual que la formación morada, ha señalado la necesidad de hacer una reforma fiscal “para ir hacia un sistema más justo y equitativo”, criticando previamente las medidas establecidas para reducir la recaudación en el Impuesto de Sociedades que baja un 1,7% este año por el impacto de la pandemia en las empresas. En este sentido, ha apostado por eliminar bonificaciones en este tributo y por modificar el IRPF “para que los que tienen más, paguen más.”

Los grupos junteros que apoyan al Gobierno foral se han congratulado de las “positivas” expectativas de recaudación. El portavoz socialista Juan Otermin ha lamentado que algunos vean al Gobierno vasco “como un rival” y no como un complemento para el desarrollo de unas políticas públicas “que nos benefician a todos”. Cree que es una buena noticia que haya una mayor aportación de Udalkutxa para los ayuntamientos, aunque ha mostrado su preocupación por la evolución de los ingresos fiscales generados con el Impuesto de Sociedades, si bien 2022 “apunta hacia la normalidad.”

Por su parte, el grupo Nacionalistas Vascos ha destacado que las previsiones de 2022 se hagan ya con la metodología de la nueva Ley de Aportaciones. Es una “buena señal” también, según su portavoz Jesús Lekerikabeaskoa que Bizkaia “no reciba nada” del Fondo de Ajuste, cifrado en 113,8 millones de euros, lo que indica que “se hacen bien las previsiones”, así como que los ayuntamientos vayan a disponer de 117 millones más para invertir.

En el turno de réplica, y preguntado por EH Bildu por el impacto en la recaudación de las “tasas Tobin y Google” (175 millones, según Urkaregi), Rementeria ha confirmado que se han tenido en cuenta ambos tributos en las previsiones, que Bizkaia recaudará el “90%” de los mismos y que su Gobierno está a la espera de que el Congreso cambie la Ley del Concierto Económico para traer a la Cámara vizcaína una nueva normativa foral.

En cuanto a la implantación de un futuro Fondo de Emergencia, Rementeria ha explicado que la propuesta de Bizkaia contempla reservar un “0,5% del total” con “un tope de 75 millones de euros”, para poder servir a “emergencias que pongan en riesgo la vida o la integridad de las personas”.



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

PROTOCOLOS COVID Y DISPOSITIVOS DE MEDICIÓN DE CO2

En la misma sesión, la comisión ha rechazado una proposición no de norma del grupo Elkarrekin Bizkaia en la que se pedía actualizar la información relativa a los protocolos covid en los edificios y servicios públicos competencia de la Diputación respecto a la transmisión por aerosoles, así como instalar dispositivos de medición y de exhibición de CO2. La formación morada pretendía llevar esta mejora al transporte público, y los centros de día y residenciales, dependientes de la Diputación. La iniciativa ha decaído por el rechazo de los grupos junteros Nacionalistas Vascos y Socialistas Vascos, que consideran que la Diputación ha implantado “todas” las recomendaciones hechas por las autoridades sanitarias. Por su parte, los otros dos grupos de la Cámara, EH Bildu y el grupo Mixto-PP Bizkaia, han votado a favor.